

OSOKO BILKURA 2022-04-28

Organoa: Udal Plenoa

Izaera: Ohikoa

Deialdia: Lehena

Eguna: 2022-04-28

Ordua: Hasiera 18:35etan.

Bukaera 18:45etan.

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak:

Alkatea: Iزارo Elorza Arregi andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- .- Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu)
- .- Anik Maitane Zubizarreta Arturo andrea (EH Bildu)
- .- Iñaki Olalde Altzelai jauna (Bildu)
- .- Iker Oñate Ayastuy jauna (EH Bildu)
- .- Susana Altuna Ugarte andrea (EH Bildu)
- .- Asier Iraeta Izagirre jauna (EH Bildu)
- .- Karmelo Guridi Gallastegi jauna (EH Bildu)

- .- Ainhoa Galdos Olazar andrea (EAJ-PNV)
- .- Andoni Altuna Uribe jauna (EAJ-PNV)
- .- Jon Kepa Guerricagoitia Arrien jauna (EAJ-PNV)
- .- Nerea Altube Galdos andrea (EAJ-PNV)
- .- Angel Biain Peña jauna (EAJ-PNV)

Idazkaria: Iñigo Roldan Catalan jauna

Kontu-hartzailea: Paskual Elustondo Darpon jauna

Ez dira bertaratu:

- .- Maite Anton Leno andrea (EH Bildu)
- .- Alaitz Kortabarria Igartua andrea (EH Bildu)
- .- Miren Amaia Erostarbe Letamendi andrea (EAJ-PNV)
- .- Maria Jose Etxegoien Arzuaga andrea (EAJ-PNV)

AZTERGAIK

1. Onartzea, hala badagokio, 2022-03-31ko ohiko osoko bilkuraren akta, (3.2022).
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Jose de Azpiazu musika eskola elkarte eta Oñatiko Udalaren arteko hitzarmena onartzea eta dirulaguntza izendun eta zuzena onartzea, Kultura Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 31an.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: Europako funtsen kudeaketarako Oñatiko udalaren lruzuraren aurkako plana onartzea, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 12an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Araotzeko ostatuko zerbitzuen emakidaren kontratazioa espediente onartzea eta esleipen prozesua abiaraztea, Zerbitzuak eta Landa garapen Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 19an.

5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Aurrekontuen plantilla eta lanpostuen zerrendaren aldaketa, idazkaritzako administrari plazaren lanaldia, %100era igotzeko, izena ‘administrarira’ aldatzeko eta HAZ zerbitzura atxikitzea, Pertsonal eta barne antolakuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 25ean.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Aurrekontuen plantilla aldaketa, Kale Garbitzaile plaza berri bat sortzea, laboral finkoa, E taldea, Pertsonal eta barne antolakuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 25ean.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: [REDACTED], [REDACTED], Olalan guneko alokairu kontratuaren amaiera eta luzatzeko eskaera onartzea, Sozioekonomia eta Turismo Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 13an.
8. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Pablo Arejolaleiba Ugartek Aloña Mendi Igoerako ordezkariak egindako diru-laguntza eskaera eta diru-laguntza zuzena onartzea, Sozioekonomia eta Turismo Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 13an.
9. Hala badagokio, presako gaiak.
10. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
11. 2022eko martxoaren 28tik 2022 apirilaren 22ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 335 zenbakitik 429 zenbakira.
12. 2022ko Toki Gobernuko Batzordeen akten berri ematea (7. Eta 8. Saioak).
13. Toki Gobernuko Batzordeak 2022ko apirilaren 7an hartutako erabakiaren berri ematea: eragozpen oharra altxatzea.
14. Galderak eta eskaerak.

Akta honen parte da saioaren soinu-grabazioaren ondoriozko fitxategia. MP3 formatuko fitxategi bat da, Udaleko Zerbitzariaren saioko karpetan dagoena, osoko bilkuraren datarekin.

BILERA:

2

1.- Onartzea, hala badagokio, 2022-03-31ko ohiko osoko bilkuraren akta, (3.2022).

Alkateak galdetu du ea Udalbatzako kideren batek oharren bat egin behar duen aurreko bilkurako aktari buruz. 2022ko martxoaren 31ko bilkura agiria irakurri eta aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

2.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Jose de Azpiazu musika eskola elkarte eta Oñatiko Udalaren arteko hitzarmena onartzea eta dirulaguntza izendun eta zuzena onartzea, Kultura Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 31an.

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Jose de Azpiazu musika eskola elkarte eta Oñatiko Udalaren arteko hitzarmena onartzea eta dirulaguntza izendun eta zuzena onartzea.

2022eko martxoak 29an egindako Kultura batzordearen akta, German Meabebasterretxea (Kultura Batzordeko idazkaria eta kultur teknikaria) sinatua. Honela dio:

“Teknikariak, Oñatiko Udalak eta Jose de Azpiazu Musika Eskola Elkarteak adosturiko hitzarmenaren testua aurkeztu du:

“Hitzarmenari baiezkua ematen diote bi alderdiek.”

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (22.2 a eta 28 artikulua) eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak (14. Artikuluak) ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoa da artikulu hau:

30.2 artikulua: *“Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”*

Gainera **Ordenantza orokorraren 18.2** Artikuluak dio:

“Diru-laguntza erregulatzeke oinarriek xedaturikoaz gain, diru-laguntza egiaztatzeke ondoko dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Urtean metatutako Udal diru-laguntzak 60.000 eurotik gorakoak direnean: Finantza egoerak aurkeztu behar dira (egoeraren balantzea eta galera eta irabazien kontua), enpresa eskudunak auditaturik, dagokion erregistro ofizialean behar bezala izena emanda, eta horietan aipatu behar dira gastuak eta diru sarrerak, erakundearen jarduera globalarena nahiz udal dirulaguntzaren xede den ekintza edo ekintza berezi(ar)ena.

Halaber, diru-laguntza xede duten ekintzen azalpen memoria bat aurkeztu behar da, egin diren ekintzena, eta horrekin batera balorazio bat, lortu diren emaitzena.”

2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, bere 17. Artikuluak (20. Atalean) eskumen propioak ematen dizkie udalei honako esparru material hauetan:

“Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.”

Herri Administrazioen Ondarearen Legearen 124 eta ondorengo artikuluen arabera (33/2003 Legea, azaroaren 3koa), Administrazioen ondarea alokatu daiteke, baina lege bereko 2. Azken Xedapenak adierazten du aipatutako legeko artikulua ez direla oinarritzkoak. 124.1 artikulua dio lehiaketa publiko bitartez esleitu behar direla errentamenduak, baina ondoren bete nahi diren beharren arabera aukera ematen du zuzenean alokatzeke. Zuzeneko errentamendua kultura batzordeak justifikatu du: Aurrekoak kontuan hartuz, Kultura Batzordeak proposatu zuen Gorritxitxi eraikina zuzenean Musika Eskolari alokatzea 4 urtetarako, kontuan hartuta Musika Eskola irabazi asmorik gabeko elkarte delarik eta Oñatin musikarekin erlazionatutako irakaskuntza hedatu eta sustatzea duela helburu.

40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena ikusita, eta bereziki, honako artikulua hauek nabarmendu behar dira:

“-47. artikulua. Definizioa eta hitzarmen motak.

1. Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera.

Ez dira hitzarmenak hartzen jarduketako protokolo orokorrak edo antzeko tresnak, baldin eta eduki orokorreko asmoen deklarazio hutsak badakartzate edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea azaltzen badute, betiere haien ondorioz ez bada konpromiso juridiko zehatz eta eskatzeko modukorik formalizatzen.

Hitzarmenek ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak. Xede hori hartuz gero, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusita dagoenari lotu beharko zaizkio.”

-48. artikulua.

3. Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezela lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete.

8. Alderdiak adostasuna emanaz burutzen dira hitzarmenak.

50. artikulua. Hitzarmenak sinatzeko nahitaezko izapideak eta haien ondorioak.

1. Autonomia-erkidegoetako legeriak aurreikus ditzakeen berezitasunak gorabehera, hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko du, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna,

eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelako izaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea.

49. artikulua. Hitzarmenen edukia.

h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregelak hauek kontuan hartuta:

1.a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.

2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.”

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela. Partida zenbakia hau da: 1.0800.481.326.00.01 2022 (343), Musika eskolaren dirulaguntza.

Halaber, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen abenduaren 27ko **32/2018 Foru Dekretuak**, 3. artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Gaia azterturik, eta Kultura batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalaren eta Jose de Azpiazu Musika Eskolaren arteko lankidetzak-hitzarmena onartzea eta horretarako adostasuna ematea. Hitzarmen honek Musika eskolari diru-laguntza izendun eta zuzena emateko hitzarmen arautzailea barne hartzen du. Diru-laguntza hori Oñatiko Udalaren 2022ko aurrekontu orokorretan dago jasota.

Bigarrena.- Hitzarmen honek 4 urteko iraupena izango du, eta 4 urteak igarota, ondoriorik gabe geratuko da automatikoki, isilbidezko luzapenik gabe.

Hirugarrena.- Hitzarmen honek dakartzan ondorio ekonomikoak onartzea eta baita hurrengo urteetarako dagokion egokitzapen gastua.

2022erako 141.0000 eurotako gastua onartzea, 1.0800.481.326.00.01 2022 (343), Musika eskolaren diru-laguntza diru-atalaren eta bere lotespen-mailaren kargura, kontuan hartuta diru-laguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea diru-laguntza emateko ebazpena emateko unean. Hurrengo urteetarako hitzarmenetik eratorritako betebeharrei erantzuteko behar den kreditua gorde eta gaitu beharko da.

Laugarrena.- Diru laguntza zuzen eta izenduna hau, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (DNS) argitaratzea erabakitzea.

Bostgarrena.- Kultur teknikaria izendatzea Oñatiko Udaleko arduradun, hitzarmen hau behar bezala bete eta garatzeko.

Seigarrena.- Hitzarmen hau Hitzarmenen Erregistroan inskribatzea, behar bezalako publizitatea emateko Gardentasunaren Atarian, Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55. artikuluan oinarrituta eta, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 b artikulua babesean.

Zazpigarrena.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

Zortzigarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta kultur teknikariari jakinaraztea.

Bederatzigarrena.- Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.

Gaia aztertuta, eta Kultura Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

3.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: Europako funtsen kudeaketarako Oñatiko udalaren Iruzuraren aurkako plana onartzea, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 12an.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Europako funtsen kudeaketarako Oñatiko udalaren Iruzuraren aurkako plana onartzea.

2022ko apirilaren 12an egindako Ogasun batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Ogasun Batzordeko idazkaria eta Kontu-hartzailea (Paskual Elustondo Darpon jauna), ziurtatzen duenez.

“3.- Next Generation: Iruzuraren aurkako plana

Kontu-hartzaileak zera dio:

- *Udala Next Generation deritzaien dirulaguntzak eskatzeko izapideak hasi dituela, eta horretarako nahitaezkoa dela Iruzuraren aurkako plan bat izatea.*
- *Plan hau egiteko eredutzat Eudelek proposatutakoa hartu dela eta gero EHUrena eta hainbat udalen ereduak ere begiratu direla.*
- *Planaren egitura zera dela: 8 atal eta bost eranskin*
 - 1.- *Testuingurua*
 - 2.- *Helburua eta aplikazio eremua*
 - 3.- *Iruzur arriskuen balorazioa*
 - 4.- *Iruzuraren aurka borrokatzeko neurriak*
 - 5.- *Iruzurra kontrolatzeko organoa*
 - 6.- *Glosarioa*
 - 7.- *Datu pertsonalen babesa*
 - 8.- *Planaren exekuzioa eta komunikazioa*
- *Eranskinak:*
 - *1.eranskina: Oñatiko Udalaren adierazpena*
 - *2.eranskina: Interes gatazkarik eta iruzurraren zein ustelkeriaren prebentzioari buruzko testa*
 - *3.eranskina: Igea-Interes gatazkarik ezaren adierazpen-eredua*
 - *4.eranskina: Ikur edo adierazle gorriak iruzurraren aurkako borrokan*
 - *5.eranskina: Enplegatutako publikoen kode etikoa*
- *Planaren zirriborroa batzordekideei banatzen die.*
- *Plana berria, luzea eta zaila izanik, epe bat beharko dutela batzordekideek aztertzeko.*
- *Proposatzen du ea posible izango litzatekeen apirilaren 26ko Ogasun Batzordeak irizpena ematea, eta apirilaren 28ko OBn erabakitzea.*

Ogasun Batzordeak, aho batez, aldeko irizpena ematen dio Iruzuraren aurkako Planari.”

Ikusita HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Egoitza Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzeko duena, eta bereziki bere 6. Artikuluak dioena.

Ikusita Iruzuraren aurkako planak udalak izapidetzen dituen espedienteetara aplikagarria dela.

Gaia aztertutik, eta Ogasun batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Europako funtsen kudeaketarako Oñatiko udalaren Iruzuraren aurkako plana onartzea, espedientearen emandako idazketarekin.

Bigarrena.- Plan hau udaleko web orriko gardentasun atarian zintzilikatzea.

Hirugarrena.- Plan honek ezartzen dituen neurriak martxan jartzea.

Laugarrena.- Oñati udaleko teknikariei plan honen onarpenaren berri ematea.

Gaia aztertuta, eta Ogasun Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

4.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Araotzeko ostatuko zerbitzuen emakidaren kontratazioa espedientearen onartzea eta esleipen prozesua abiaraztea, Zerbitzuak eta Landa garapen Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 19an.

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Kontratuaren xedea da honako emakida hau ematea: Araotzeko Ostaldea izeneko eraikineko taberna/denda, jatetxea eta lau apartamentu turistiko ustiatetaren kontratazioa. (Esptearen 891_5).

Araotzeko landa-auzoaren bihotza indartzeko eta auzoa bizirik mantentzeko helburuarekin, Araozko garai bateko nesken eskola, balio anitzeko ostaldea bezala egokitzeko prozesua abian jarri zuen auzoak 2017an.

EAEko G4, G5 eta G6 landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko 2018ko laguntza deialdiaren ebazpenak dirulaguntza jasoko zela ziurtatu ondoren, proiektuarekin aurrera egiteko Araozko auzoaren eta Udalaren arteko 1º lankidetzaren hitzarmen markoa onartu zen 2019ko urtarrilaren 31an Udal Osoko Bilkurak egindako bileran. 2019ko ekainaren 16an 1º faseko lanak esleitu ziren. 2021eko ekainaren 1ean aipatu lanen obra bukaera ziurtagiria onartu zen.

Ondoren, EAEko G4, G5 eta G6 landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko 2019ko laguntza deialdiaren ebazpenak dirulaguntza jasoko zela ziurtatu ondoren, proiektuarekin aurrera egiteko Araozko auzoaren eta Udalaren arteko 2. lankidetzaren hitzarmen markoa onartu zen 2020ko apirilaren 30ean Udal Osoko Bilkurak egindako bileran. 2020ko otsailaren 28an 2. faseko lanak esleitu ziren. 2021eko irailaren 1ean aipatu lanen obra bukaera ziurtagiria onartu da.

Proiektuaren garapena ikusita, dirulaguntza jaso edo ez, Araozko eskola berria balio anitzeko ostaldea bezala egokitzeko ekipamenduari aurre egitea erabaki zuten Udalak eta Araozko auzoak 2021eko otsailaren 25ean sinatutako 3. lankidetzaren hitzarmen markoaren baitan.

2022an ostalduaren ekipamendua bukatuta dagoenez eta Eusko Jaurlaritzatik jasotako dirulaguntzaren baldintzaren arabera diruz lagundu den jardueraren abian jarri beharra denez, Araotzeko ostaldea izeneko eraikina, bertan taberna/denda, jatetxea eta lau apartamentu turistiko jardueraren ustiatetaren lizitazioa ateratzea proposatzen da, Nekazaritza Teknikariaren txostenaren arabera, lote bakar batetan aterako da eta zerbitzu-emakida bost urteko iraupena izango du, beste bost urtez luzatu ahal izango dena.

Kontratuaren balio zenbatetsia 250.000 eurokoa da. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua: 25.000 euro (1go urtea)

Definitutako kontratua emakidatzat jotzen da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 15. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontratuaren xedea CPV taularen arabera kodetzea: 55100000 Ostalaritza zerbitzuak

Kontratua esleitzeko, irizpide anitza aplikatuko da;

A.- Automatikoki kuantifikatu daitezkeen irizpideak:

1-Eskaintako kanona hobetzea, 0 puntutik 31ra arte (lizitazioaren oinarritzko aurrekontuarekiko hobekuntzarik handiena eta gainerakoekiko puntuazio proportzionala eskaintzen duen lizitatzailari emango zaizkio hogeita hamaika puntuak). Formula honen arabera:

$$He = (Ol/Oa) \times 31$$

He = lizitatzailaren puntuazioa
Ol = Lizitatzailaren eskaintza
Oa = Eskaintzarik altuena

2- Ostalaritzaren sektorean izandako esperientzia: 0 eta 20 puntu bitartean. Dagokion erakundeak egindako lan-bizitzaren txostenaren bidez egiaztatuko da.

Jarduera gauzatzen duen lantaldearen kalitatea neurtzeko, kontuan hartuko da tabernako, jatetxeko edo ostatuko zerbitzuak ematen alde aurretik izandako esperientzia (kontratuaren xede diren izaera bereko edo antzeko zerbitzuak eta lanak).

Esperientzia handiena duen lantaldeari puntuaziorik altuena emango zaio. Gainerako eskaintzak formula honen arabera puntuatuko dira:

$$P_ExpL = (ExpLiz/Expmax) \times 20$$

Non:

P_ExpL: lizitatzailaren puntuazioa (eskaintzarena) (esperientziari dagokiona)
Expmax: aurkeztutako eskaintzen esperientzia handiena
ExpLiz: lizitatzailak aurkeztutako taldearen esperientzia

Oharrak:

- 1.- Lantaldearen esperientzia neurtzeko, lan-talde horretako langile guztien lan-bizitzari buruzko txostenean jasotako lan-esperientzia hartuko da kontuan.
- 2.- Gaitasun teknikoan ezarritako gutxieneko lan-taldearen lan-esperientzia bakarrik hartuko da kontuan. Hau da, ez da kontuan hartuko lizitatzailak gutxieneko lan-taldearen gainetik aurkez ditzakeen gainerako langileen lan-esperientzia.
- 3.- Esperientzia urteetan neurtuko da. Lan-esperientzia urte osoen arabera bakarrik zenbatuko da. Ez da kontuan hartuko urte oso bat osatzen ez duen denbora.

B. Balio-iritzien arabera haztatzen diren irizpideak:

1- Jarduketa-plana: 49 puntu

Ostatuaren jarduketa-planak negozioaren alderdi esanguratsuenak deskribatuko ditu, eta negozioa gauzatzeko behar diren baliabideak zerrendatuko ditu. Beharrezko jardueren plangintza islatuko du. Baliabide teknikoen eta baliabide moten ezaugarriak azalduko ditu.

Jarduketa-planak honako hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

1.- Ostalaritzan eman beharreko zerbitzuen deskribapen zehatza, taberna, jatetxea eta apartamentuak bereiziz. (15 puntu)

Jarduera bakoitzerako, bezeroei eskainiko zaien zerbitzua eta ostalaritza-eskaintza azaldu beharko dira. Halaber, zerbitzu hori emateko lan-taldea eta aurreikusitako beste baliabide batzuk deskribatuko dira.

2.- Negozio-eredua eta diru-sarrerak lortzeko modua; nola eta nondik lortuko diren diru-sarrerak (15 puntu)

Ostalaritza-jardueraren bideragarritasun-plana aurkeztu beharko da (taberna, jatetxea eta apartamentuak). Plan horretan, besteak beste, honako alderdi hauek jasoko dira: zerbitzuen eta produktuen eskaintza, merkatuaren aurreikuspena eta aurreikusitako diru-sarrerak, beharrezko lan-taldea, inbertsioak eta ustiapen-kontua.

3) Marketin-plana (5 puntu)

Ostalaritza-negozioaren publizitaterako eta hedapenerako aurreikusitako ekintzak eta baliabideak deskribatuko dira.

4) Garbiketa- eta mantentze-programa (5 puntu)

Ostatua garbitzeko programa azalduko da, erabiliko diren bitarteko materialak, maiztasuna eta langileak adierazita. Era berean, ostalaritzako ekipamendua mantentzeko programa deskribatuko da.

5) Itunen eta harremanen sarea (5 puntu)

Ostalaritza-jarduera garatzeko eta bizilagunekin bizikidetzat sustatzeko, auzo-erakundeetako truke- eta bizikidetzat-ekintzen deskribapena egingo da. Era berean, ostalaritza-jarduera garatzeko, lankidetzat-akordioak proposatuko dira ostalaritzako beste enpresa batzuekin edo inguruko turismo-erakundeekin.

6) Jarduketa-planaren kronograma (4 puntu)

Ostalaritza-jarduera abian jartzeko kronograma aurkeztuko da.

Puntuazioa esleitzeko, lizitatuzaileen proposamenak alderatuko dira, eta gehieneko puntuazioa emango zaio proposamen onenari, eta bat ere ez baldintza-agiria/proiektua betetzera mugatzen denari (berdin puntuatuko dira baliokideak diren proposamenak).

Honela baloratuko dira:

- * .- Puntuoen % 100 bikaintzat jotzen den proposamenari.
- * .- Oso ontzat jotzen den proposamenari emandako puntuoen % 75.
- * .- Ontzat jotzen den proposamenari emandako puntuoen % 50.
- * .- Puntuoen % 0 pleguaren arabera kalifikatzen den proposamenari
- .- Bikaina: konponbidea bikain gisa baloratuko da balio gehigarri bat ematen duenean, gainerako lizitatuzaileek eskainitakoa modu zabalean gaindituz.
- Oso ona: konponbidea oso ontzat joko da balio gehigarri garrantzitsua ematen duenean, dela prozesua antolatze moduan, dela teknologiaren ezaugarrietan, dela emandako funtzionalitateetan (irizpidearen arabera bereizi beharko da).
- Ona: konponbidea ontzat joko da balio gehigarri bat ematen duenean (irizpidearen arabera bereizi beharko da), PPTan eskatutakoaren gainetik.
- Pleguaren arabera: baldintza teknikoaren pleguan eskatutakoa zorrotz betetzera mugatzen den konponbide oro "pleguaren arabera" baloratuko da.

Udaleko idazkariaren 16/2022 txosten juridikoa dago espedientean, 2022 apirilaren 25ekoa.

Espedientea onartzeko, kontu-hartzailearen oniritzia beharko da, SPKLaren hirugarren xedapen gehigarriak, 3. Atalean dioenaren arabera: *"Fiskalizazio-lana, berriz, toki-entitateko organo kontu-hartzaileak egingo du. Fiskalizazio hori egingo da, halaber, kontratu berri bakoitzaren ondorioei buruz kontratazio-espedientean sartzen den balioespenaren gainean, kontratu txikien kasuan izan ezik, toki-*

entitateak bete ditzan Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 7.3 artikulua eskatzen dituen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren printzipioak.”

Gainera, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatu duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuak, 3. artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jardura ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratoritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

2022ko apirilaren 19an egindako Zerbitzuak eta Landa garapen Informazio Batzordean aldeko irizpena jaso zuen aurreko proposamena, Batzordeko idazkaria (Aitor Generabarrena Osa), ziurtatzen duenez.

Azaldutakoagatik, Zerbitzuak eta Landa garapen Informazio Batzordearen irizpena kontuan hartuz, Osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Araotzeko Ostatua izeneko eraikineko taberna/denda, jatetxea eta lau apartamentu turistiko ustiatetaren emakida administrazio kontratuaren kontratazio-espeditzea onartzea, prozedura ireki bidez, 250.000 euroko balio zenbatetsian (Kontratu Legeko 15. Artikuluaren arabera emakida kontratua).

Kontratuaren hasierako iraupena bost urtetakoa izango da, eta bost urteko luzapena aurreikusten da (guztira 10 urte).

Bigarrena. - Emakida kontratazioa arautuko duten baldintza administratibo berezien agiria eta baldintza tekniko zehatzen agiria eta Araotz ostatua ustiatzeko, kudeatzeko eta mantentzeko zerbitzu-emakida kontratuaren bideragarritasun azterketa ekonomikoa onartzea.

Hirugarrena.- Kontratuaren arduradun izendatzea, 62.2 SPKL Nekazaritza eta Auzoetako Teknikaria.

Laugarrena.- Kontratu hau prozedura irekiaren bidez esleitzeko prozedura irekitzea, eta dagokion iragarkia udal honetako kontratatzailearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, gutxienez hogeita sei egun naturaleko epean (Kontratu Legeko 156.6 artikuluen arabera), nahi duenak egoki iritzitako proposamenak aurkez ditzan.

Bostgarrena.- Kontratazio prozedura honetan beharrezkoak diren tramitezko egintzak (esleipena izan ezik) Alkateari eskuordetzea, osoko bilkurari berri emanez.

Gaia aztertuta, eta Zerbitzuak eta Landa garapen Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

5.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Aurrekontuen plantilla eta lanpostuen zerrrendaren aldaketa, idazkaritzako administrari plazaren lanaldia, %100era igotzeko, izena ‘administrarira’ aldatzeko eta HAZ zerbitzura atxikitzea, Pertsonal eta barne antolakuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 25ean.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Aurrekontuen plantilla eta lanpostuen zerrendaren aldaketa, idazkaritzako administrari plazaren lanaldia, %100era igotzeko, izena 'administrarira' aldatzeko eta HAZ zerbitzura atxikitzeko.

2022ko apirilaren 25ean egindako Pertsonal eta Barne antolakuntza batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Pertsonal eta Barne antolakuntza Batzordeko idazkaria (Izaskun Querejeta Agirre andrea), ziurtatzen duenez.

I. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (aurrerantzean, TAOL) **90.1 artikulua** honako hau xedatzen du:

"Toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero, aurrekontuaren bidez, plantilla onartzea, funtzionarioentzat, lan-kontratuko langileentzat eta behin-behineko langileentzat gordetako lanpostu guztiak barnean hartuta.

Plantillek arrazionaltasun-, ekonomia- eta efizientzia-printzipioei erantzun beharko diete, eta ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezarriko dira; langile-gastuek ezin izango dituzte izaera orokorrekarekin ezartzen diren mugak gainditu. "

Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren **126.1 artikulua** honako hau ezartzen du:

"1. Plantilla horiek funtzionarioentzat, lan-kontratuko langileentzat eta aldi baterako langileentzat behar bezala sailkatuta dauden lanpostu guztiak hartuko dituzte, eta urtero onartuko dira aurrekontua onartzean, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikuluan adierazitako printzipioei erantzun beharko diete. Horiei erantsiko zaizkie aipatutako printzipioekin bat datozela egiaztatzen duten aurrekariak, azterlanak eta dokumentuak.

2. Plantillak honako kasu hauetan handitu ahal izango dira:

A) Gastuaren gehikuntza gastu arrunt hedaezinen beste unitate edo kapitulu batzuk murriztuta konpentsatzen denean.

B) Zuzkiduren gehikuntza lege-xedapenek ezarritako nahitaezko zerbitzuak ezartzearen edo zabaltzearen ondorio denean.

Paragrafo honetan ezarritakoak ez die kalterik egingo lege berezietan edo koiunturazkoetan jasotako muga espezifikoei.

3. Aurrekontua indarrean dagoen bitartean plantillak aldatzeko, aurrekontua aldatzeko ezarritako izapideak bete beharko dira. "

II. Oñatiko udalak 2022ko aurrekontua onartu zuen 2021eko abenduaren 16ko osoko bilkuran eta behin betiko argitaratu zen 2022ko otsailaren 1eko GAO-n (20. Zenbakia) eta akats zuzenketa 2022ko otsailaren 2ko GAO-n (21. Zenbakia).

III. 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, aipagarriak dira artikulua hauek:

14-18 artikulua, aurrekontu orokorren gertuketa eta onespenera buruz.

21. artikulua. *"Langileen kredituak. Aurrekontuetako gastuen orrietan bildutako langileen gastuetarako ordainketa-kredituak honelakoak izango dira: a) Toki erakundearen administrazioan eta organismo autonomoetan, muga izaerakoak izango dira, bai kredituaren zenbatekoari dagokionean, bai plantilari dagokionean."*

IV. Plantilla onartzea Osoko Bilkurari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2-i) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

V. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen **21. artikulua** honako hau xedatzen du:

"1. Funtzionarioei dagozkien aurrekontu-plantillek kreditu-zuzkidurak zerrendatuko dituzte, honako kontzeptu hauen arabera ordenatuta:

A) Talde bakoitzari dagozkion oinarritzko ordainsariak,

B) Maila bakoitzeko lanpostuei dagozkien destino-osagarriak,

C) esleituta duten lanpostuetako berariazko osagarriak, eta

D) Produktibitate-osagarria, gastu-programa bakoitzari dagokion langile-kostu osoaren ehuneko batean adierazia."

VI. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena, **10. Artikuluak** honakoa xedatzen du:

1. *Bitarteko funtzionarioak dira, premiagatik eta berariaz justifikatutako arrazoiengatik, karrerako funtzionarioei dagozkien eginkizunak betetzeko aldi baterako bitarteko funtzionario izendatzen direnak, honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:*

A) *Lanpostu hutsak egotea, karrerako funtzionarioek bete ezin dituztenean, gehienez hiru urterako, 4. idatz-zatian aurreikusitako baldintzetan.*

3. *Nolanahi ere, Administrazioak ofizioz formalizatuko du bitarteko harremanaren amaiera, 63. artikuluan aurreikusitako arrazoiez gain, eta ez du konpentsaziorako eskubiderik izango. Hona hemen arrazoiak:*

A) *Karrerako funtzionarioek lanpostua arauzko eran betetzeagatik, lege ezarritako edozein prozeduraren bidez.*

B) *Esleitutako lanpostuak kentzea edo amortizatzea dakarten antolaketa-arrazoiengatik.*

C) *izendapenean berariaz jasotako epe baimendua amaitzeagatik.*

D) *Izendapena eragin zuen arrazoa amaitzeagatik.”*

VII. Azaldutakotik ondoriozta daiteke, udal Aurrekontuaren zati denez, onartzeko prozedura hauena bera da, baita jendaurrean jartzeko eta argitaratzeko izapidea ere.

Pertsonal eta Barne antolakuntza informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, honako hau proposatzen diot osoko bilkurari:

Lehenengoa.- Hasierako onespina ematea 2022ko urteko plantilla eta lanpostu zerrendaren aldaketari, idazkaritzako administrari plazaren lanaldia, %100era igotzeko eta izena ‘administrarira’ aldatzeko.

Bigarrena.- Onartutako aldaketa jendaurrean jartzea hamabost egun balioduneko epean, GAOn eta udaletxeko ediktu-oholean iragarkia jarrita. Epe horretan, interesdunek aztertu ahal izango dute aldaketa, eta osoko bilkurari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Behin betiko onartutzat joko da epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada. Bestela, Osoko Bilkurak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko eta behin betiko onartzeko erabakia hartzeko.

Hirugarrena.- Aldaketa horrek dakartzan gastua onartzea.

Laugarrena.- Idazkaritzako administrari plaza hori HAZ zerbitzura atxikitzea. Erabaki honek ondorioak izango ditu behin administrari barne promozioa amaitzen denean.

Bostgarrena.- Alkateari ahalmena ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko.

Seigarrena.- Erabaki hau pertsonal sailari eta kontu-hartzaileari jakinaraztea.

Gaia aztertuta, eta Pertsonal eta Barne antolakuntza informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

6.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Aurrekontuen plantilla aldaketa, Kale Garbitzaile plaza berri bat sortzea, laboral finkoa, E taldea, Pertsonal eta barne antolakuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 25ean.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Aurrekontuen plantilla aldaketa, Kale Garbitzaile plaza berri bat sortzeko, laboral finkoa, E taldea.

2022ko apirilaren 25ean egindako Pertsonal eta Barne antolakuntza batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Pertsonal eta Barne antolakuntza Batzordeko idazkaria (Izaskun Querejeta Agirre andrea), ziurtatzen duenez.

32/2021 Legegintzako Errege Dekretuak, abenduaren 28koak, lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzkoak kontrataziorako baldintzak aldatu ditu.

Lehenik eta behin, desagertu egiten da obra edo zerbitzu jakin baterako kontratuak egiteko aukera. Horrela, iraupen mugatuko lan-kontratuak ekoizpenaren edo langilearen ordezkapenaren zirkunstantziengatik baino ezingo da egin, eta aldi baterako kontratuen arrazoi justifikatua dagoela uler dadin, beharrezkoa izango da kontratuan zehatz-mehatz zehaztea aldi baterako kontratazioaren gaikuntza-arrazoiak, kontratuak justifikatzen duten inguruabar zehatzak eta aurreikusitako iraupenarekin duen lotura.

Bestalde, 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 23koak, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 15. artikuluan arautzen du:

“2. Artikulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, produkzioaren inguruabartzat hartuko dira jardueraren noizbehinkako eta aurreikusi ezinezko gehikuntza eta gorabeherak, enpresaren ohiko jarduera izan arren, aldi baterako desoreka eragiten dutenean enplegu egonkorren eta eskatzen denaren artean, betiere 16.1 artikuluan jasotako kasuei erantzuten ez badiete.

Aurreko paragrafoan aipatutako gorabeheren artean, urteko oportunitate eratorritakoak sartuko dira.

Iraupen mugatuko kontratuak ekoizpenaren inguruabar horien ondorio bada, kontratuaren iraupena ezin izango da sei hilabetetik gorakoa izan. Sektoreko hitzarmen kolektibo bidez, kontratuaren gehieneko iraupena urtebetera arte luzatu ahal izango da. Kontratuak legez edo hitzarmenez ezarritako gehieneko iraupena baino laburragoa bada, behin bakarrik luzatu ahal izango da, alderdiek hala adostuz gero, eta kontratuaren iraupen osoak ezin izango du gehieneko iraupen hori gainditu.

Era berean, enpresek produkzioaren inguruabarrak direla-eta kontratuak formalizatu ahal izango dituzte, noizbehinkako egoerei, aurreikus daitezkeen egoerei eta iraupen laburreko eta mugatuko egoerei erantzuteko, paragrafo honetan aurreikusitako baldintzetan. Enpresek gehieneko laurogeita hamar egunez erabili ahal izango dute kontratu hori urte naturalean, egun horietako bakoitzean egoera zehatzei aurre egiteko beharrezkoak diren langileak alde batera utzita. Egoera horiek behar bezala identifikatuta egon beharko dute kontratuan. Laurogeita hamar egun horiek ezin izango dira jarraian erabili. Enpresek, urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, kontratu horiek erabiltzeko urteko aurreikuspen bat helarazi beharko diete langileen legezko ordezkariari”.

12

Hori guztia kontuan izanda, kale garbiketa peoi plaza bat sortzea beharrezko ikusten da Oñatiko Udalak dituen beharrei behar bezala erantzuteko.

I. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (aurrerantzean, TAOL) **90.1 artikulua** honako hau xedatzen du:

"Toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero, aurrekontuaren bidez, plantilla onartzea, funtzionarioentzat, lan-kontratuko langileentzat eta behin-behineko langileentzat gordetako lanpostu guztiak barnean hartuta.

Plantillek arrazionaltasun-, ekonomia- eta efizientzia-printzipioei erantzun beharko diete, eta ekonomia-antolamendu orokorraren arabera ezarriko dira; langile-gastuek ezin izango dituzte izaera orokorrekin ezartzen diren mugak gainditu."

Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren **126.1 artikulua** honako hau ezartzen du:

"1. Plantilla horiek funtzionarioentzat, lan-kontratuko langileentzat eta aldi baterako langileentzat behar bezala sailkatuta dauden lanpostu guztiak hartuko dituzte, eta urtero onartuko dira aurrekontua onartzean, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikuluan adierazitako printzipioei erantzun beharko diete. Horiei erantsiko zaizkie aipatutako printzipioekin bat datozela egiaztatzen duten aurrekariak, azterlanak eta dokumentuak.

2. Plantillak honako kasu hauetan handitu ahal izango dira:

A) Gastuaren gehikuntza gastu arrunt hedaezinen beste unitate edo kapitulu batzuk murriztuta konpentsatzen denean.

B) Zuzkiduren gehikuntza lege-xedapenek ezarritako nahitaezko zerbitzuak ezartzearen edo zabaltzearen ondorio denean.

Paragrafo honetan ezarritakoak ez die kalterik egingo lege berezietan edo koitunturazkoetan jasotako muga espezifikoei.

3. Aurrekontua indarrean dagoen bitartean plantillak aldatzeko, aurrekontua aldatzeko ezarritako izapideak bete beharko dira."

II. Oñatiko udalak 2022ko aurrekontua onartu zuen 2021eko abenduaren 16ko osoko bilkuran eta behin betiko argitaratu zen 2022ko otsailaren 1eko GAO-n (20. Zenbakia) eta akats zuzenketa 2022ko otsailaren 2ko GAO-n (21. Zenbakia).

III. 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, aipagarriak dira artikulua hauek:

14-18 artikulua, aurrekontu orokorren gertuketa eta onespenera buruz.

21. artikulua. *“Langileen kredituak. Aurrekontuetako gastuen orrietan bildutako langileen gastuetarako ordainketa-kredituak honelakoak izango dira: a) Toki erakundearen administrazioan eta organismo autonomoetan, muga izaerakoak izango dira, bai kredituaren zenbatekoari dagokionean, bai plantilari dagokionean.”*

IV. Plantilla onartzea Osoko Bilkurari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2-i) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

V. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 21. artikulua honako hau xedatzen du:

“2. Lan-kontratuko langileei dagokienez, aurrekontu-plantilletan dagozkien kreditu-zuzkidurak ere sartuko dira, aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritakoaren arabera ordain daitezkeen ordainsari-kontzeptuen arabera ordenatuta”.

VI. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena, 11. Artikuluak honakoa xedatzen du:

“1. Langile lan-kontratudunak dira, lan-arloko legeriaren arabera langileak kontratatuzko edozein modalitate erabilita, idatziz formalizatutako lan-kontratu bati esker, administrazio publikoek ordaindutako zerbitzuak ematen dituztenak. Iraupenaren arabera, kontratua izan daiteke finkoa, mugagabea de aldi baterakoa.

2. Estatutu hau garatzeko emango diren Funtzio Publikoko legeetan ezarriko dira langile lan-kontratudunek zein lanpostutan jardun dezaketen finkatzeko irizpideak, betiere, 9.2 artikuluan ezarritakoa aintzakotzat hartuta”.

VII. Azaldutakotik ondoriozta daiteke, udal Aurrekontuaren zati denez, onartzeko prozedura hauena bera da, baita jendaurrean jartzeko eta argitaratzeko izapidea ere.

Pertsonal eta Barne antolakuntza informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, honako hau proposatzen diot osoko bilkurari:

Lehenengoa.- Hasierako onspena ematea 2022ko urteko plantilla aldaketari, kale garbitzaile plaza sortzeko (E taldea): laboral finko plaza. Ezaugarriak gainontzeko kale garbitzaile plazek dutenen berak dira.

Bigarrena.- Onartutako aldaketa jendaurrean jartzea hamabost egun balioduneko epean, GAOn eta udaletxeko ediktu-oholean iragarkia jarrita. Epe horretan, interesdunek aztertu ahal izango dute aldaketa, eta osoko bilkurari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Behin betiko onartutzat joko da epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada. Bestela, Osoko Bilkurak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko eta behin betiko onartzeko erabakia hartzeko.

Hirugarrena.- Aldaketa horrek dakartzan gastua onartzea.

Laugarrena.- Alkateari ahalmena ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko.

Bostgarrena.- Erabaki hau pertsonal sailari eta kontu-hartzaileari jakinaraztea.

Gaia aztertuta, eta Pertsonal eta Barne antolakuntza informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

7.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: ██████████
██████████, Olalan guneko alokairu kontratuaren amaiera eta luzatzeko eskaera onartzea, Sozioekonomia eta Turismo Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 13an.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: ████████████████████, Olalan guneko alokairu kontratuaren amaiera eta luzatzeko eskaera onartzea. S/1183.

Unai Kortabarria Errastik, Oñatiko Sozioekonomia Saileko teknikariak, 2022ko apirilaren 13an egindako Sozioekonomia eta Turismo batzordearen sinatutako aktak honela dio:

“██████████ *Olalan guneko kontratua luzatzeko eskaera egin zuen 2022ko apirilaren 6an.*

Ordutegi partekatuan jarraituko du, arratsaldeko ordutegian, hau da, astelehenetik ostiralera 14:00etatik 20:00etarako ordutegi tartean.

Alokairu kontratua 2022ko maiatzaren 1ean hasi eta 2023ko apirilaren 30ean amaituko da. Kontraturen amaieran, itxaron zerrendarik ez balego, eskatzaileak alokairu kontratua berritzeko aukera izango du, beste urte baterako.

Ordaindu beharreko hileroko kuota 40€ + BEZ izango da.

Gai buruzko azalpenak Sozioekonomia eta Turismo batzordean eman ostean batzordeak ██████████ egindako eskaera onartzea proposatzen du.”

Horrela beraz, honako erabaki proposamena egiten zaio Osoko Bilkurari:

LEHENENGOA.- ██████████ egindako kontratua luzatzeko eskaera onartzea goian zehaztutako baldintzetan.

BIGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea alokairu kontratua sinatzeko.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

Gaia aztertuta, eta Sozioekonomia eta Turismo Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

8.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Pablo Arejolaleiba Ugartek Aloña Mendi Igoerako ordezkariak egindako diru-laguntza eskaera eta diru-laguntza zuzena onartzea, Sozioekonomia eta Turismo Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 13an.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Pablo Arejolaleiba Ugartek Aloña Mendi Igoerako ordezkariak egindako diru-laguntza eskaera eta diru-laguntza zuzena onartzea.

2022ko apirilaren 13an egindako Sozioekonomia-Turismo zerbitzu batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Oñatiko Turismo teknikariak ziurtatzen duenez:

“IKERNE ALTUBE ERAÑA ANDREAK, Oñatiko Turismo teknikaria naizenez, ziurtatzen dut 2022ko apirilaren 13ko datuz Sozioekonomia-Turismo Batzordeak honako DIKTAMENA eman zuela:

Esp. Zb.: S-01/2022

Aloñak Igoera elkarteak egindako dirulaguntza eskaera

Pablo Arejolateibar Ugartek, Aloñako Igoera elkartearen izenean, 2022. urterako dirulaguntza eskatu du, Aloñako Igoerako ekipamendu gastuen kostuari aurre egiteko.

2022. urtean gaia aztertuta, hainbat konklusio atera dira eta, horren ondorioz, Oñatiko Udalak, Aloñako Igoera elkartearekin elkartuta, besteak beste, proposamen hau egin dute:

- Oñatik erreferentziazko turismo-eredu jasangarri eta inklusiboa garatzearen aldeko apustua egiten du, bere kultura- eta natura-ondarearen elementu bereizgarriei balioa ematea, esperientzia-produktuak eta bizipenak sortu ahal izateko.
- Oñatiko kultura eta natura ondarea era sostengarrian ezagutaraztea herrian eta herritik kanpo, benetako helmuga turistiko jasangarria delako Euskal Herriko turismoaren panoraman.
- Oñati turismo ikuspuntutik Oñatiko turismo eredu jasangarrienetakoa da Arrikruz-Oñatiko Koba proiektua eta eredu hori kontutan izanda udalerriko kirolaren eta kulturaren balioak positiboki eta era jasangarrian bultzatu nahi ditu.
- Arrikruz-Oñatiko Koba Aloñako Igoerako kirol-probako topaleku bezala erabiltzea; besteak beste, deabru maskotaren etxea, sare sozialetan edota informazio banatzean Arrikruz-Oñatiko Koba aipatzea ondare eta natura balioak modu jasangarriaren erreferentzia-lekua.
- *Aloñako Igoera Elkarteak ekipazioan Arrikruz-Oñatiko Koba izena hartzea, turismo eredu jasangarri bezala.*

Oñatiko Udalak 3.000€-ko aurrekontua onartu du Aloñako Igoerara kirol-probaren kostuari aurre egiteko.

Partida zenbakia: 1 1000.480.432.01.01 2021 (5305)

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Oñatiko turismoaren iritziz, aipaturiko ekintza hori egin dezakeen elkarte bakarra Aloñako Igoera da. Herriko naturgunea era zabalean ezagutarazten duen herriko kirol-proba dugu eta Oñatin horrelako proba antolatzen duen bakarra da.

Aloñako Igoera elkarte horretan aritu da azken urteotan. Horrela, jarduera horrek izaera berezia ematen dio, eta zerbitzuaren ustez, arrazoi publiko, sozial, ekonomiko edo humanitariokoa da. Horrek arrazoitzen du zergatik ez den prozedura irekia egiten (38/2003 Legearen 22-2.art.)

Horrenbestez, goian aipatutako guztia kontuan izanik, Sozioekonomia-Turismo Batzordeak Osoko Bilkurari proposatzen dio:

Lehenengoa.- *Aloña Igoera elkarteari dirulaguntza zuzena ematea onartzea. Dirulaguntza hori Oñatiko Udalaren 2022ko aurrekontu orokorretan dago jasota.*

Bigarrena.-*Aloñako Igoera elkarteak Arrikutz-Oñatiko Kobak izena erabilita herriko turismo-eredu jasangarri eta inklusiboa garatzearen aldeko apustua egiten duen bitartean Udalak diruz lagunduko du elkarte, kirol-probaren defizitari aurre egiteko 2022an, hain zuzen ere, 3.000 euroko laguntza emango dio.*

Hirugarrena.- *Udalaren lehenengo ordainketa fakturaren inportea izango da, gehienez 3.000 eurokoa izango da. Kontuan hartuta dirulaguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza emateko ebazpena emateko unean. Elkarteak, bestalde, zuriak aurkeztu beharko du ondorengo ordainketak jaso ahal izateko.”*

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

22.3 artikulua: *“Honako diru-laguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:*

C) Salbuespen gisa, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten bestelako diru-laguntzak, edo behar bezala justifikatutako eta deialdi publikoa zailtzen duten bestelako diru-laguntzak.”

30.2 artikulua: *“Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiria edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”*

34.3 artikulua: *“Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.*

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Azaldutakoagatik, eta Sozioekonomia-Turismo Batzordearen onetsiarekin, Osoko Bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- *Aloña Igoera elkarteari diru-laguntza zuzena ematea onartzea. Diru-laguntza hori Oñatiko Udalaren 2022ko aurrekontu orokorretan dago jasota.*

Bigarrena.- Diru-laguntza honek dakartzan gastua onartzea aurrekontuko dagokion diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura, kontuan hartuta diru-laguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea diru-laguntza emateko ebazpena emateko unean.

Hirugarrena.- Elkartek jarduera egin ondoren zuriketa aurkeztu beharko du ordainketak jaso ahal izateko. Dirulaguntzaren zuriketa Tokiko Gobernu Batzordeak onartu beharko du, Turismo Batzordearen proposamena ikusita.

Laugarrena.- Diru laguntza hau Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

Bostgarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari, eta teknikariari jakinaraztea.

Seigarrena.- Erabakia interesdunari jakinaraztea.

Gaia aztertuta, eta Sozietate ekonomia eta Turismo Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

9.- Hala badagokio, presako gaiak.

Alkatearen eskariz, presazko gai bat (Zerbitzuak eta Landa Garapen batzordekoa) gai-zerrendan sartzeko behar diren urratsak egin ondoren, hau da, gaia arrazoitzea (espedientea deialdia egiterakoan ez zegoen oraindik prest eta premiazkoa da espediente horren erabaki bat hartzea) eta bertaratuen gehiengoaren botoa lortzea, gai hau zerrendan sartzea erabaki da 13 boto aldekoekin (8 EH BILDU + 5 EAJ).

9.1.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: Josiuen baserritik Ugarkalde auzoko sarbiderako bide-zatia konpontzeko dirulaguntza zuzena onartzea, Zerbitzuak eta Landa Garapen Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 19an.

17

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Josiuen baserritik Ugarkalde auzoko sarbiderako bide-zatia konpontzeko dirulaguntza zuzena onartzea.

2022ko apirilaren 19an egindako Zerbitzuak eta Landa Garapen batzordearen aktak, Aitor Gerenabarrena Osa, Nekazaritza auzoak eta ingurumen teknikariak eta Batzordeko idazkariak sinatua, honela dio:

“Josiuen baserritik Ugarkalde auzoko sarbiderako bide-zatia konpontzeko dirulaguntza eskaera (945/sar) (999/esp)

2022ko martxoaren 21eko sarrera-data (945 zk.) duen idatziaren bitartez, [REDACTED] jaunak (Aramaixuena, Izaro, Artadi, Erreitzea, Irazola eta Eguzkitza) etxebizitzaren izenean San Lorentzoko bidegurutzetik hasi eta Ugarkaldeko lotura arteko bide-zatia (250 ml) zabaltzeko eta konpontzeko 8.500 €-ko dirulaguntza ematea eskatu du honako baldintza eta konpromisoekin: konponketa-lanak auzolanean egingo dituzte, bide-zatia erabilera publikorako zabalik utziko dute, 2022ko udan gauzatuko dituzte lanak. Hori guztia, baldin eta bidea soilik oinezkoen erabilerarako mugatzen bada.

Eskaera ez da berria, hain zuzen, 2020ko abuztuaren 4an (2186/sar) eta 2021eko uztailaren 20an (2617/sar) aurkeztutako eskaerei jarraipena ematen die.

2021eko urriaren 21ean Udal Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

lehenengoa.- bidea publiko izateko azterketa eta aukera proposamena egiteko eskaeraren aurrean, 2016ko apirilaren 7an Udal Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako irizpidea berrestea.

bigarrena.- nahiz eta bidea pribatua izan, kontuan izanda SI-10 ibilbidea bertatik igarotzen dela eta herritar ugari aisialdirako erabiltzen dutela, onura publikoa nabaria da, hortaz, bidea hobetzeko proposatzen diren lanak diruz laguntzeko erabakia hartzea. Horretarako, 2020ko eta 2021eko aurrekontuen artean dagoen ezberdintasuna alde aurretik argitu beharko dutela adieraztea.

hirugarrena.- dirulaguntza eman ahal izateko, diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak eta berau garatzeko 887/2006 Errege Dekretuak xedatutakoari jarraituz, 2022ko udal aurrekontuetan izendatutako laguntza jasoko dela adieraztea- Lanak gauzatu aurretik, hitzarmen baten jaso beharko dira laguntza gauzatzeko baldintzak (22.2 a) artikulua).

Udalak eskatu bezala, 2020an aurkeztutako aurrekontuaren (8.286,40 € BG) eta 2021eko aurrekontuaren (13.395,66 € BG) arteko ezberdintasuna argitu ondoren, 8.500 €-ko dirulaguntza eskatu dute.

Gaia aztertu ondoren, Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordeak aho batez honako erabakia har dezala eskatu dio Udal Osoko Bilkurari:

Lehenengoa: San Lorentzoko bidegurutzetik hasi eta Ugarkaldeko lotura arteko bide-zatia (250 ml) nahiz eta bidea pribatua izan, kontuan izanda SI-10 ibilbidea bertatik igarotzen dela eta herritar ugari aisialdirako erabiltzen dutela, bidea zabaltzeko eta egokitze lanak onura publikotzat izendatzea.

Bigarrena: 2016/04/7an eta 2018/05/10ean Landa Garapen Batzordeak hartutako irizpideei jarraituta, aipatu lanak egiteko 8.500 €-ko dirulaguntza ematea.

Hirugarrena: dirulaguntza eman ahal izateko, diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak eta berau garatzeko 887/2006 Errege Dekretuak xedatutakoari jarraituz, lanak gauzatu aurretik, hitzarmen baten jaso beharko dira laguntza gauzatzeko baldintzak (22.2 a) artikulua.”

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

22.3 artikulua: “Honako diru-laguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:

C) Salbuespen gisa, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten bestelako diru-laguntzak, edo behar bezala justifikatutako eta deialdi publikoa zailtzen duten bestelako diru-laguntzak.”

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitorzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiria edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatze balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Azaldutakoagatik, eta Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordearen onetsiarekin, Osoko Bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- San Lorentzoko bidegurutzetik hasi eta Ugarkaldeko lotura arteko bide-zatia (250 ml) nahiz eta bidea pribatua izan, kontuan izanda SI-10 ibilbidea bertatik igarotzen dela eta herritar ugari aisialdirako erabiltzen dutela, bidea zabaltzeko eta egokitzeko lanak onura publikotzat izendatzea.

Bigarrena.- 2016/04/7an eta 2018/05/10ean Landa Garapen Batzordeak hartutako irizpideei jarraituta, aipatu lanak egiteko 8.500 €-ko dirulaguntza zuzena [REDACTED] jaunari ematea onartzea.

Hirugarrena.- Diru-laguntza honek dakartzan gastua onartzea aurrekontuko dagokion diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura, kontuan hartuta diru-laguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea diru-laguntza emateko ebazpena emateko unean.

Laugarrena.- [REDACTED] jaunak jarduera egin ondoren zuriketa aurkeztu beharko du. Dirulaguntzaren zuriketa Tokiko Gobernu Batzordeak onartu beharko du, Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordearen proposamena ikusita.

Bostgarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari, eta teknikariari jakinaraztea.

Seigarrena.- Erabakia interesdunari jakinaraztea.

Zazpigarrena.- Diru laguntza hau Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

Gaia aztertuta, eta Zerbitzuak eta Landa Garapen Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

10.- Hala badagokio, larrialdi-mozioak.

Ez daude.

11.- 2022eko martxoaren 28tik 2022 apirilaren 22ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 335 zenbakitik 429 zenbakira.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

12.- 2022ko Toki Gobernuko Batzordeen akten berri ematea (7. Eta 8. Saiok).

Toki Gobernuko batzordearen 7. (2022/03/24koa), eta 8. (2022/03/31koa) saioen akten berri eman da.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

13.- Toki Gobernuko Batzordeak 2022ko apirilaren 7an hartutako erabakiaren berri ematea: eragozpen oharra altzatzea.

Toki Gobernu Batzordeak 2022ko apirilaren 7ko ohiko bilkuran, besteak beste, erabakia hau hartu zuen:

“2021eko apirilaren 29ko ohiko bilkuran Tokiko Gobernu batzordeak Udalaren argindarraren kontratua aldatzea erabaki zen. Kontratu horri epemuga iritsiko zaio epe laburrean.

2011ko apirilaren 20ko Udal Plenoak hartutako erabaki bidez onartu zen udal hau Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralari atxikitzea.

Egungo argindarraren kontratua urte bukaeran amaitzen zenez Kontratazio Zentralak, argindar hornidura kontratatzeke espediente berri bat irekitzeko asmoa zuela jakinarazi zigun, atxikipen data otsailaren 24an bukatzen zela adieraziz.

Udal honek zerbitzu hori kontratatu behar zuela eta 2022ko otsailaren 9ko Alkate Dekretuz erabaki zen argindar hornidura kontratatzeke espedienteari atxikitzea, 2011ko apirilaren 20 udal Plenoak onartutako atxikipen hitzarmenean ezarritako termino eta baldintzetan eta 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuan jasotako araei jarraituz. Erabaki hau Zentralera bidali zen 2022ko otsailaren 17ko sarrera dataz.

Ondoren, 2022ko martxoaren 5eko idatzi baten bidez Foru Aldundiko Kontratazio zentralako arduradunak idatzi bat bidaltzen du, non adierazten digun argindarraren kontratazio espedientea bertan behera utzi duela Zentralak martxoaren 4an izandako bileran.

Udaleko idazkariaren 15/2022 txosten juridikoa dago espedientean, 2022/04/06koa.

Kontuhartzaileak 21/2003 Foru Arauaren 70. Artikuluaren arabera 2022/04/06ko eragozpen oharra egin du espedienteari (1/2022), eta eten egin da espedientea.

Azaldutakoagatik, Tokiko Gobernu Batzarrari honako hau proposatzen diot: 20

Lehenengoa.- Kontuhartzailetzak adierazitako eragozpen oharra altxatzea.

Bigarrena.- Udalaren argindar kontratuak CHCrekin sinatzea, prezio indexatuan eta iraunkortasunik gabe.

Hirugarrena.- Alkateari baimena ematea kontratuak sinatzeko.

Laugarrena.- Tramiteak hastea argindar horniduraren lizitazio edo GFaren argindar-kontratu zentralera atxikitzeke, lehenbailehen erabakitzeko.

Bostgarrena.- Kontratu honek dakartzan gastua onartzea, 2022ko aurrekontuko dagokion partida eta bere lotespen-maila kargura.

Seigarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta interesdunei jakinaraztea.

Zazpigarrena.- Erabaki honen berri Osoko Bilkurari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea.”

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

14.- Galderak eta eskaerak.

Ez daude.

Besterik ezean, 18.45ak zirenean, Alkateak amaitutzat jo zuen bilkura, eta esandakoak jasota gera daitezen egin dut agiri hau Alkatearen ontzat emanarekin.

O.E

Alkateak

Idazkaria

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan